

Gaur irekiko da Kultur Etxeko +55 Elkartegietan izena emateko epea

Ikastaroak urria-abendua hiruhilekorako dira eta 700 plaza dituzte. Izena emateko epea azken eguna irailaren 24a da

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 13a. Ignacio Aldecoa Kultur Etxeak antolatzen duen +55 Elkartegiak deritzon programak urria-abendua hiruhilekoko ikastaro eta tailerretan izena emateko epea ireki du gaurtik hasi (irailaren 13a) eta hilaren 24ra arte.

11 ikastaro dira, hainbat gairi buruzkoak, hala nola artearen historia, biologia, Europako historia, 0 hizkuntza-maila (euskara, frantsesa, ingelesa), gerokultura eta osasuna, literatura, pedagogia edo prentsa, bost tailer (barreterapia, zinema, antzerkia edo musika), eta lau prestakuntza informatiko mota (KZ Gunea, sinadura digitala, gmaila eta smarphoneak). 700 plaza, guztira.

Udazken honetan, +55 Elkartegiak ezagutza eta garapen pertsonalerako ate bat irekitzean oinarritutako programa bat prestatu dute, entretenimendutik harago, zahartzaroan ongizatea ahalbidetzen duten trebetasun funtzionalak garatu eta mantentzeko helburuarekin ", adierazi du Ana del Val Kultura eta Kiroleko foru diputatuak.

Ikastaroetan izena emateko, sartu [web orri honetan](#), edo bestela, deitu 945 18 19 44 telefono zenbakira (+55 Elkartegiak txartela dutenek soilik), 10:00etatik 13:00etara, edo joan +55 Elkartegiak duen bulegora (2. solairua), 10:00etatik 13:00etara.

Plazak zozketa bidez adjudikatuko dira.